

Ahoskera arautzeaz eta ikaste-irakasteaz

Sobre la normativización y enseñanza o aprendizaje
de la pronunciación

À propos de la normativisation de la prononciation
et de son enseignement-apprentissage

On the standardization, teaching and learning
of pronunciation

OÑEDERRA, Miren Lourdes
Euskaltzaindiaren Ahoskera batzordeburua
Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU)

Noiz jaso: 2020-05-02

Noiz onartua: 2020-09-12

Euskera. 2019, 64, 2, 2. 939-957. Bilbo
ISSN 0210-1564

Artikuluak Euskaltzaindiaren Ahoskera Batzordearen lana du abiapuntu (Oñederra et al. 2015) eta ahoskera araupetzearen inguruko gogoetak partekatzea, helburu. Garbi dago ahoskera arautzea zentzugabea litzatekeela ahoskatzen irakasterik ez balego. Ahozko euskara estandartzeko, beharrezkoa da ikasbide eraginkorrenak bilatzea hizkera mailen arteko erlazioak antolatuz. Eginkizuna egoki bideratzeko oztopo litezkeen arazo zenbait hausnartzen dira: jatorkeria, maileguak, ortografia, hiztunen jarrerak.

Gako-hitzak: Ahoskera, aldakortasuna, araugintza, batasuna, hizkera-mailak.

El artículo parte del trabajo de la Comisión de Pronunciación de la Academia de la Lengua Vasca (Oñederra et al. 2015) y tiene como objetivo el compartir algunas reflexiones sobre la normativización de la pronunciación. Está claro que dicha tarea sería absurda de no ser posible la enseñanza de la pronunciación. A la hora de estandarizar el euskera oral hay que buscar los métodos más efectivos para organizar la relación entre los diferentes registros. Se analizan potenciales obstáculos para la buena marcha del proceso: coloquialismo excesivo, préstamos, ortografía, actitudes de los hablantes.

Palabras clave: Pronunciación, variabilidad, normativización, unidad, registros.

Cet article prend sa source dans les travaux de la Commission de Prononciation de l'Académie de la Langue Basque (Oñederra et al. 2015). Il a pour objectif de partager des réflexions sur la normativisation de la prononciation. Il est évident que cette tâche n'aurait pas de sens si l'enseignement de la prononciation n'était pas possible. Lorsqu'il s'agit de standardiser le basque oral, il faut chercher, les méthodes les plus efficaces pour organiser les relations entre les différents registres. L'article analyse les obstacles potentiels dans le bon fonctionnement du processus : langage excessivement familier, emprunts, orthographe, comportements des locuteurs.

Mots-clés : Prononciation, variabilité, normativisation, unité dialectale, registres.

The starting point of this paper is the work of the Pronunciation Committee of the Academy of the Basque Language (Oñederra et al. 2015), and it aims at sharing some reflections on the normativization of pronunciation. It is clear that pronunciation rules would be senseless if pronunciation could not be taught. In the pursuit of an oral Basque standard the most effective teaching should be based on the relations among different language levels. Several subjects that could interfere in the process are discussed such as excessive colloquialisms, borrowing, orthography, speakers' attitudes.

Keywords: Pronunciation, variability, norms, dialectal unity, registers.

Artikuluaren mamiari ekin aurretik, esan nahi dut Euskaltzaindiaren Ahoskera batzordeko kideen (Agurtzane Elordui, Pilartxo Etxeberria, Irantzu Epelde, Oroitz Jauregi eta Jasone Salaberriaren) lankidetzeta eta inspirazioa ditudala zor: gure arteko eztabaida, ikerlan eta (2018an bereziki) ikasketa saioak. Hemen esango ditudanak horien fruitu dira neurri handi batean. Interpretazio eta loturetan egin ahal izan ditudan hutsak niri dagozkiet oso-osorik.

2015ean aurkeztu zen Batzordearen lana (Oñederra et al. 2015), baina hortik aurrera egin behar da, Batzordeak jarraitu egin duelako lanean eta ahoskeraren inguruko araugintzaren berri ematea oso garrantzitsua delako euskararen une honetan.

Ondoko lerrootan gogoetarako bideak nahi dira ireki, abiapuntu izan ditugun kezkez pentsatzearen ondorioak partekatu. Mezuaren helburu behinena da hartzaileagan lekuan lekuko dinamikak abiatzeko gogoia piztea.

Ahoskera arautzeak ez luke zentzurik izango, ahoskatzen irakasterik ez balego. Arau onenek ez lukete balioko, teorikoki egokienak balira ere, hizkuntzaren kasuistika osoa bilduko balute ere, ezin balitz ikasi arau horiek erabiltzen. Gauza jakina da, ordea, ahoskera ikas eta irakats daitekeela. Badira aukerak, hots bereizkuntza zailenez jabetzeko garatutako teknika sofistikatuenetatik (ik., adib., Jennifer Krzonowski et al. 2015) metodo orokorragoetaraino; ez direlarik bateraezin irakasbide espezifikokoak eta orokorragoak. Eraginkorrenak bilatu beharko dira egungo euskal ahoskeraren arazoei aurre egiteko, hiztun bakoitzaren abiapuntuaren arabera igarotzen ikasteko gaztelania edo frantsesezko sistematik euskararenera, etxeko euskaratik euskara zaindura, ikasgelako euskaratik kalekora.

1. Ahoskerak axola du

2015eko Ahoskera batzordearen txostenaren izenburuak arrazoi indartsuak ditu. Eremu kognitibo eta psikolinguistikoa, hiztunari ziurtasuna ematen dio ahoskera egokiak, Ulrikke Rindalek (2013) ohartarazi bezala (ik. halaber Šimáčková; Podlipský 2016 hots mota baten ahoskera egokiak ematen duen jatorriasunaz). Alderdi soziolinguistikoa, bestalde, euskarak

normalizatzeko ezinbesteko zaizkion hizkera mailak garatu behar lituzke gaztelaniaren eta frantsesaren ereduetatik ahal bezain babestuta. Ahoskera da erdaren eraginaren sarleku babesgabeena.

Hizkuntzari berari begira ere, ez da huskeria euskaraz *neska*, *extarri*, *espa-loi* egotea, baina ez *nesga*, *ezdarri*, *esbaloi*. Erregularitasun horrek badu zeri-kusia hizkuntzaren muinarekin, barreneko erritmo antolaketarekin. Besteak beste, euskarak silaba egitura zaintzen du (Jauregi 2008a) eta, besteak beste, silaben hasierak indartzen ditu (Oñederra 2020). Fonologian gauza jakina da halakoak mugagabea edo ergatiboa bezainbat zaindu behar direla, hizkuntza bere osotasunean bizindartu nahi bada.

Bai 1993an abiatu zen Ahoskera batzordeak eta bai EBAZ landu zuen Ahoskera lantaldeak (Euskaltzaindia 1998), Euskaltzaindiari arauak proposatzean, oraintxe esanagatik gomendatu zuten *ex da EZTA* ahoskatzea.¹ Erdaren eta estandar idatziaren eragin kaltegarriari aurre egitea da helburu. Ahal den neurrian, noski. Ahoskera ezinbestean da aldakor, baina aldakortasuna ahultzaile izan ordez indartzailea izan dadin, fonologikoki antolatua izan behar du araugintzak arauen irizpide eta irispidearen aldetik.

Hasteko, hiztunaren *fonemetan* oinarritzen da araugintza. Hiztunak hots-irudi edo fonemak izaten ditu gogoan. Irudi horiek aldatu egin daitezke hitz egitean, egoeraren arabera, urduritasunaren eta lastertasunaren arabera, hizketa-gaia edo solaskidea nola hauteman. Esan ohi da ahoskera testuinguruari egokitzen zaiola. Hala, egoera formaletan hots galtze edo itxuraldatze gutxiago gertatu ohi da, hiztunak ardura handiagoz erreparatzen baitio ahoskatzen dituen hitzen formari bestelako hizketa-egokieretan baino: horregatik deitzen zaio hizkera-maila horri “zaindua”. Nola hiztunaren kontrolpekoagoa den, zuzenen arautu daitekeen maila da. Hori gogoan, Euskaltzaindiak EBAZen bidez hiztunari esaten dio, egoerak hala eskatzen duenean, gaiak horretara eramaten duenean, hitzen kontsonanteak ahoska ditzala, guztiak, “jan” gabe; berdin bokalak, elkarterakoan aldaketak egin gabe. Bestela esan, hitzak hiztegiko oinarritzko forman ahoska ditzala. Letrak

¹ Hotsak adierazteko maiuskula txikiak erabiliko dira eta ortografia arrunta (y gehitu da *Jon*-en lehen hotsa *Jabier*-enaren j-tik bereizteko).

aitpatzean arauetan, hiztunaren buruko hots irudiez ari gara, letrak baitira hiztun alfabetatuaren unitate horiekiko euskarri errazena. Euskal ortografiaren gardentasun fonikoak erraztu egiten du, noski, letrak erabili ahal izatea arauak adierazteko orduan. Aldi berean adi egon behar da letra-hots identifikazio gehiegizkoak sor litzakeen kalteekin, eta, gainera, garbi izan arauak ez direla soilik testuak irakurtzeko.

Arauak proposatzeko funtsezko beste hatsarre fonologikoa izan zen ezin zaiola eskatu hiztunari bere fonema biltegian ez duen unitaterik erabil dezan.² Horri dagokiola, hiru salbuespen daude hizkera zaindurako proposamenen: *s/z* bereizkuntza, *r* hobikaria (frantsesetikakoa arbuiauz), albokari palatala (LLABUR). Hiru aukeren zio nagusia da euskal fonemen galerari aurre egitea, hizkera-maila zainduenetan hiztunen trebakuntza lehenetsiz.

Ahoskerak axola du beraz, baina axola al zaigu? Hizkuntzaren irakaskuntzari buruzko jardueretan, gai horien inguruko argitalpenetan, are ahozkoaren irakaskuntzan ere ez da nabarmentzen kezkarik ahoskeraz. Orokorra bide da ahoskerari hizkuntzaren gainerako atalei baino garrantzi gutxiago emate hori (Rindal 2013). Euskararen eremuan, ordea, kalte handiagoa dakar horrek, hizkuntza ez dagoelako normalizatua, hiztunek bestelako lehen hizkuntza bat (ere) badutelako ahoskera sendo estandartua duena (ik. joera exonormatiboez Oñederra et al. 2015).

Irakaskuntzan, azterketetan eta diskurtsoetan, adibidez, *-a* organikoa edo ergatiboa ahanztea baino askoz errazago onartzen zaio hizlari bati *eZDakit*, *eZDut* esatea sistematikoki edo *jarrai*, *teologia*, gaztelaniazko *J* bezalakoaz egitea hitzaldi batean ere.

Ahoskeraz ez arduratzeko aitzakietako bat izaten da ezagutzarik eza eta eremu teknikoegietan sartu beharra ahoskeraz aritzeko. Litekeena da ordea teknikoegizat jotzea ohiturarik ezagatik. Gutxiago axola duenez gramatikak baino, gutxiagotan hitz egiten da ahoskeraz eta ezagutzarik ezak ma-muak sortzen ditu. Gauzak gertutik ikusita, zergatik da “teknikoagoa” *S apikaria* eta *Z lepokaria* direla esatea *ergatiboaz* edo *komunztaduraz* hitz egitea

² Ezta duenik kendu ere.

baino? Ziurrenik, gainera, termino horiek ez dira nahitaezko ahoskera irakasteko (agian bai irakasleak trebatzeko).

2. “Azentua”

Euskara batuak ez du berezko ahoskera-sistematik hizkera artifizial bat den aldetik. Idazteko sortu zen kodea da, baina ez honezkero hori bakarrik. Erabileraren poderioz, ahoz erabili behar eta nahi izan delako, zenbait ahoskera-azpisistema garatu dira, horien ezaugarri izanik:

- a) kasuan kasuko erabiltzaileen euskalkiaren ahoskera sistema³
- b) letra-hots identifikazioa

Azentuarekin zer egin da? Gaztelaniarena hartu Hegoaldean eta frantsesarena Iparraldean. Gaztelaniazkoa azentu tipo unibertsalena da, alegia, bereziki kutsakorra; frantsesarenak ez du laguntza hori eta, gainera, hiztun gutxiago izateak ahulezia soziologikoa ematen dio euskarari.

Batua ahozko egiteak ekarri duen prosodiak⁴ badu beste ezaugarri garrantziko bat; hizkuntza modu formalean ikasteak hizkako azentua sendotu du:

- (1) zuék ez dúzue itxóiten
zuék zaudéte hór...

Berandu gabilta. Bide luzea egin da. Hizkuntzalarien analisi praktikan aplikagaitz edo gaizki-ulertuek ez dute asko lagundu. Hemendik aurrera, zer-bait egin baliteke oraindik, irakaskuntzan legoke itzaropena. Euskara haurtzarora igaro aurretik ikasi dutenei ez zaie prosodiarik *irakatsi* behar, berea gorde eta edozein hizkera-mailatan erabil dezaten bermatu baizik. *Desikas* ez dezaten da erronka: euskara idatziarekin, euskara batuarekin topo egitean ez daitezela hasi, automatikoki, azentuak hizka azken-aurreko silaban jartzen. Inportantea da hemen *automatikatotasun* hori, ez baita edozer gauza egiten,

³ Absurdoa da beraz pentsatzea Gasteizen ezin dela maila arduragabeetarako irakasle bakoitzaren euskalkia erabili, ustezko zaindu batu horretan irakaslearen euskalkia ez balego bezala.

⁴ *Prosodia* erabiliko da hemendik aurrera hizketaren ezaugarri musikalkal adierazteko, *azentua* horietako bat da, doinua, eritimoa, eta abarrekin batera.

hori baizik: hizka eta azken-aurreko silaban. Iparraldean, azken silaban frantsesagatik edo azken-aurrekoan, unibertsaltasunagatik eta Hegoaldeko euskararen bidez maiz, batua gure ahoetatik hedatu baita alor zenbaitetan.

Azentuak hizka banatzea joera orokorra omen da hizkuntza haurtzarora igaro ondoren ikasi dutenen artean (Šimáčková; Podlipský 2015: 139). Besteak beste, halako hiztunek polikiago hitz egiteko joera dute. Hiztegia eta gramatika ikasteko egiten duten memoria ahaleginak arreta hitzetan eta are morfemetan ere jartzera bultzatzen ditu. Gainera, euskara bezalako hizkuntza eransleetan bereziki astuna izan ohi da gramatikaren pisua. Arazo horiek euskara txikitari ikasi duen askoren batua ere harrapatzen dute neurriren batean, nerabezaroa gaindituta iritsi baitzitzairen batua eta, oso maiz, bigarren hizkuntza bat balitz bezala hasi ziren ahoskatzen letretatik abiatuta.

Irakaskuntzak (eta irakasle trebakuntzak, eta agirietarako azterketek, eta abarrek) gramatikan eta hiztegian biltzen ditu indarrak. Teknikak teknika, buruz ikasten dira. Izan ere memoriaz barneratzen diren ezagutza motak dira. Ahoskera ez da halakoa.

Hizkuntzaren hiztegia eta gramatika dira hizkuntzak hiztunari dakarkiona, hiztunak ikasi behar duena, hizkuntzaz jabetu (txikitari) edo ikasi (handitan) ahala. Ahoskera, berriz, funtsean da hiztunak dakarkiona hizkuntzari bere gorputz eta adimenaz. Hiztun txikiak igarri egiten du, aurkikuntza modura, giza gorputzak errazten duenetik, bere hizkuntz(ar)en aukerak zeintzuk diren, noiz amore ematen duen eta noiz ez. Bigarren horren zailtasuna (*onTTo*, *LLabur*, *aTZO*) da bereganatu behar lukeena heldutan ekiten dionak hizkuntza bat ikasteari.

Hori lortzeko ahoskera ez da ikasten gramatika eta hiztegia bezala, beraz ezin da irakatsi gramatika eta hiztegia bezala. Maiz ez da ongi bereizi ahoskera zer den. Batuan *gurpila/kurpila* aukera ez dagokio ahoskerari, hiztegiari baizik, eta memoriaz ikasten da, *nire/nere* bezala. Desberdina da *dira* hitzean R kentzea lasaitasunagatik giharrak laxatzen ditugulako. Hori ikastea hots kateen irudi akustikoez jabetzea da: zein hots, zein erritmo, zein itxura fonetiko duen lagunarteko hizketak eta zein, hitzaldi batekoak edo diskurtso politiko batekoak. Hori garbi izan behar dugu, ahoskera arauak joera sistematiko bizeie dagokien bezala funtzionatuko badute.

Nola eraman hori prosodiara, hizkuntzaren kantura? Hitzunei baliabi-deak (alegia, hitz multzoak txertatzeko doinu-erritmo eredu egokiak) eman behar zaizkie ez daitezen behartuta egon goragoko (1) edo ondoko (2) bezalakoetara.

(2) *zér egín oté dut ník horrékin*

Hizkera bizietako kanta galdu ez eta hizkera zaindu batura ere iristea da helburu. Analizatzen hasita, zailtasuna silaben multzokatze eta hitzen neurri desberdinetan legoke. Alderatu, adib., *Nora joan zara*-ren bi ahoskera posible:

(3) NOA-JUN + TSE-A = 4 silaba (2+2)
NO-RA + YO-AN + SA-RA = 6 silaba (2+2+2)

Irakaslearen zeregina litzateke sei silabatara pasatze horrek ez dezala hautsi musika, ez dezala hizkako erritmoa (*nóra yóan zára*) ekarri (*nórayoan(t) sarà, noráyóan(t)sarà*). Ez dago modu egoki bakarra silabak eta doinuak elkarrekin josteko (Jauregi 2008b: 341) eta horregatik gorde daitezke eredu egokiak silaba kopuruak aldatuta ere. (4a) adibideko prosodia desegokia konpontzeko ere komeni da hizkera bizietako esaldiez gogoratzea eta bi multzo (4b) edo bat (4c) egitea, baina ez hitz adina multzo:⁵

(4a) ekárri / behár / ditúzue / gáuzak

(4b) ekárri-behar-dituzuè / gáuzak

(4c) ekárri-behar-dituzuè gauzàk

Ondokoan (5a) azentuaren aldetik, *ergo* erritmoarenetik, gaztelaniaz bezalaxe (5b) jokatu du hitzunak hitzak azentu banatan kokatuz. Euskarak, adib., (5c) edo (5d) bezalako moldaketa eskatuko luke.

(5a) Báda jendéa egíten duéla gáuza gehiágo

(5b) Háy génte que-háce más cósas

(5c) Háy-gente-que-hàce más-còsas,

(5d) Háy-gente-que-hàce más-cosàs

Onenean, akats gramatikala zuzenduko zaio (hobe du agiriren bat atera nahi badu), baina oso litekeena da azentuera bere horretan gelditzea betiko:

⁵ Beheranzko tiletak (à) azentu bigarrenkaria adierazten du, goranzkoak (á) nagusia.

irakasle-, ama-, hizkuntz erabiltzaile- eta hedatzaile-bizitza osorako. Beste askoren artean gasteiztar guraso gazteek euskara hori bereganatu dute. Gramatika eta hiztegia idazteko ortografia irakatsi zaie, baina ez ahoskatzeko era, horrek berez atera beharko balu bezala.

1998ko Ahoskera lantaldeak zioena eta 2015ean Ahoskera batzordeak berretsi zuena errepikatzen dugu orain ere: ahoskera ikasteko, esaldiak ahoskatzen ikasi behar da. Kontua ez da hitz bakoitzean azentua non kokatzen den euskalki honetan edo hartan, baizik zein den esaldi-kantua, erritmoa, doinua euskalkiren batean eta, oro har, euskaraz. Gauza bat dago argi: ez doa hizka, hitz-multzoka baizik.

Irakaskuntzan ideia hori garatzen duen Marinen (2011) metodoa bezalakoek ondorio hobek emango dituzte dialektologiazko eta fonologiazko ikerketa zehatzek baino (horiek beharrezko eta eskertzeko izanik oso). Ahoskera batzordearen ibilbidean ikasketarik onuragarrienetakoa Marinen mintegi praktikoa izan da. Antzerkirako ikasbideak euskararen irakaskuntzara hedatzea benetan mesedegarri litzateke eta aukera serio aztertu behar litzateke.

Izan ere, ahoskera oharkabean ikasi behar litzateke, ikaslea beldurtu gabe eta, batez ere, buruz ikasi beharreko arau eta erregelaz zamatuta gabe. Ikasleak aski uxatu ditugu gramatikaren aberastasuna gauza guztien gainetik jartzen. Bestalde, oso harro gaude, baina ea nork esaten duen *gengozkizun* edo *liezadakete* kaña bat hartu bitartean (eta asko dira halako erabileratarako bakarrik behar dutenak hizkuntza). Arazoa latzagoa da ahoskeraren eremuan, ezin delako buruz ikasi benetakoa izango bada (alferrik beraz arauz kargatzea).

Nire ingelesezko ahoskerak asko du hobetzeko, baina esango nuke inguruko batezbestekoaren gainetik dabilela. Bada, *t-ak hobikari* eta hitz hasieran *hasperendum* zirela fonologian ikasi dut, baina lehenago ikasi nuen hala egiten, Shakespeareren *Macbeth*-en sorginetako bat izan nintzelako literaturazko ikastaro batean eta askotan errepikatu nuelako ozen... edo Blake-ren *Tiger tiger burning bright* poema ozen deklamatzera jolasten genuelako.

Marinen metodoarekin ahoskera lantzeaz gain, ikasten da hitz ordena, eta sendotzen komuntzadura, mugagabeak eta bestelako erregulartasun gra-

matikalak. Ez baitago ahoskerarik eduki lexiko, gramatikal, pragmatikorik gabe eta ez litzateke egon behar eduki lexiko, gramatikal, pragmatikorik dagokion ahoskerarik gabe. Hitzak banaka ahoskatzen ikasteak hori bultzatzen du: eduki lexiko, gramatikal, pragmatikorik gabeko ahoskera. Hori bai artifiziala!

3. Hizkuntzaren aldagarritasuna ahoskeran, erabilera mailak

3.1. “Jatorkeria”

Euskara jator eta herrikoia egin nahi dutenen neurritz kanpoko kenketa, murrizketa eta antzeko ahoskera-motak ez dira beti apropos, gaztelaniaz mikrofono aurrean hizlariak *na más que pa eventos* esango balu bezala. Egia da, janzkera informalen egungo orokortzearekin batera, euskaradunon kopuru erlatiboki txikia eta soziologikoki murriztua ere kontra ditugula hizkera zaindu bat eraikitzeke orduan. Gainera, txikitasunaren ezaugarriak areagotu egiten dira “giro ona” izateak gizaki askori ematen dion plazeragatik, babes moduko horregatik. Euskara erabiltzeko zioa oso “bihotzezkoa” da maiz, taldearekiko identifikazioa bilatzen da eta horrek hizkera ez-zainduaren ezaugarriak areagotu ditzake.

Diziplina behar genuke ohitura horietatik ateratzeko: antzerki moduko batean erabilera-mailak hizkera desberdinekin bateratu. Gizarte txiki batean bizi bagara ere, denok lehengusu bagina bezala jokatzea ez da nahitaez egoki.

Espainiakoa, oro har, eredu txarra dugu: berri emanaldietan ere *acción* ACIÓN, *exención* ESENCIÓN, *constancia* COSTÁNCIA entzun daitezke. Berri emanaldi batetik ateratakoa da *untaron al chófer de Bárcenas*, hiztegi aukera trakets horrekin. Euskaraz ere eguraldiaren iragarpenean *eguraldia bihar izorrratzen hasiko da*, ez litzateke beharbada aukerarik zainduena.

Alderantziz ere gertatzen da, zinean, adibidez, hemengo gaztelania behar lukeenean emazteak senarrari esaten dionean etxean *Nos ha TOCADO* vs. sinesgarriagoa litzatekeen *TOCAU*. Hegoaldeko bederen mailarik gabeko des-eredu hori barneratu dugu, EBAZ arauen arrakastarako arazo nagusia den aldagarritasunik eza indartzen duena.

3.2. Maileguak

Uholdeka datozkigun maileguez gaztelania-/frantsesetikako ahoskeren barneratzea bultzatzen dute. Garbizaletasuna egun ez badago ere ondo ikusia, noizbait elebidunen hizkuntza ahulenaren osasunaren testuinguruan ikusi behar genuke gaia. Ondo neurtuz gero, garbizaletasunak, kontzientzia motatzat eta ez debeku itsutzat hartuta, hitzen biziraupenerako oxigenoa ere ekar lezake. Esaterako, *desprestigioa* G hotsaz ahoskatzeko zailtasunari ihes egiteko bide are zailagoa gertatzen da *izena zikintzea* esatea. Gure ikasleek ia ez dute erabiltzen (ezagutzen?) *ospe* hitza ere.

Tarteka ahoskerak hiztegia ere zaintzera bagaramatza, euskara zainduaren kalitatea sendotuko da. Ez dut horrek hala izan behar duela esaten. Ez nago ziur. Gaia bera mahai gainean jartzeari deritzot interesgarri. Azken batean hiztunaren kontzientzia hartze bat ari gara hemen aldarrikatzen.

Hizkera zainduaren bereizgarri da hiztuna, edukiaz batera, formaz kezkatzea. *(Des)prestigioa* nola esan zalantzaren aurrean pentsatu behar litzateke gure aitona-amonek esaten ez zituzten hitz horiek, behar ditugunean, nola entzunarazi euskaraz umeei? Elebidun dira, eleaniztun ere bai sarri. Gaztelaniaz J esaten badute, euskaraz G egiteak forma desberdintzen du. Badu horrek egitekorik hiztun eleaniztunengan (gogoratu nola sortu diren *bolsa/boltsa*, *subidón/subidoi* bezalako “itzulpen” erregelak). Irudikatu eleaniztunek *prestigio* oineko hitzetan gaztelaniaz J, frantsesez *z*, ingelesez *Dz* eta abarren ondoan euskaraz G izateak (bai Hego, bai Ipar) ematen duen eredia.

Ez da gutxietsi behar lehen aldiaren garrantzia. Izan ere, hizkera zainduan hiztegi ikasi espezializatuak maiztasun erlatiboki handia izaten du. *Genoma* lehen aldiz entzun duenak irratian edo eskolan, G hotsaz ahoskatu badiote, ez du gero hala errepikatzeko lotsarik izango. *Filologia* ebakitzeko ere alemanezko kidea entzutea gaztelaniazko irudiak baino egokiago litzateke (berdin, *loGika* naturaltzeko, alemanezko *LoGik*).

Maileguen alorrean atal berezia merezi du gaztelaniatikako Z hotsak. *Gozada bat, klase sozialak, ni marziano bat bezala* barra-barra entzuten dira eta nago galdua dela arazoa, Hegoaldeko gehitu dugula Z gure fonemen inventarioan. Haatik hizkera zainduan bederen txistukarira jo beharko genu-

ke. Ez da asko eskatzea, edo ez dakit zergatik den mugagabea eskatzea baino gehiago. Bestalde, hizkera dotoretzearekin batera batu egiten du batua gure belarrietan. *Paracetamol* txistukariaz egiteak esan nahi du bat arduratu eta saiatu egiten dela. Berdin gertatzen da Iparraldeko hizlaria tarteka bederen hitzaldi formaletarako R hobikaria egiten saiatzean.

Izan ginen bada gauza *h* idazteko, nahiz asko izan kontrako argudioak. Haatik orain eragile gehiegi ez dira “zetak” eta “jotak” hizkera zainduan saihesteko ahaleginera ere iristen.

3.3. Ortografia

Ohore-ren idazkerak ahoskera zaindua (OORE) errazten du. Hitzaren beraren berezitasunak (ez da kaleko hizkerakoa) normalean bokalak bikoizten ez ditugunoi ere laguntzen digu. *Zahar*, *lehen* bezalakoetan ere letra dugu oroigarri eta irakurketa ozenetan, adibidez, nabaritzen da. Ez da desegoki egoera formaletan hitzuna letrari lotzea. Beste egoeretan ekar litzakeen kalteak begiratzea litzateke gure lana: ez ditzala hots-letra lotura horrek galazari ez aldagarritasun dialektologikoa ez estilistikoa. *Lehenago*-k ez dezala desagerrarazi beste mailetako zenbaiten *LENAGO* edo *zahar-ek*, *ZAR*; ez da idazteak EZTA inondik galarazi behar ez lukeen bezalaxe.

Maila, *zaila* eta halakoetan ere, letren bidezko itxura desberdin zaio MALLA esaten ohituari. Oroigarri moduko bat du letretan. Grafia-hots auzi horrek azal lezake nola dagoen gipuzkoarrik ustezko batuan MAILA bai, baina *jator* YATOR inola ere egingo ez duenik. Izan ere, *ohore*, *lehen*, *maila* bezalakoetan idazkera batuan bere ohiko ahoskera ez bezalakoa ikusten duenari *jan*, *jatorri*, *joan*, berriz, berdin-berdin idatzirik datozkio litekeen edozein aldaera fonikotarako, berdin batuan zein euskalkian. Ez dago beste aukera grafikorik, ez dago *j* berezirik, ez dago *h* bezalako oroigarririk (ahoskatzen ez duten hitzunez ari naiz, noski). Imajina dezagun nola izango ziren gauzak, batuan *j*-ren orde z y idaztea onartu balitz, ahoskera palatala izan zedin. Ez dago ohartzea besterik zenbat errazago gertatzen zaigun gipuzkoarroi *hierarkia*, *ihardunaldi* idatziz *J* saihestea, *jerarkia*, *jardunaldi* idatzita baino. Pentsa *baitu* ez balitz horrela idaztea erabaki: seguru BAIT DU litzatekeela orain ustezko ahoskera batua.

Hemendik ez da inola ere ondorioztatu behar ortografia aldatu behar litzatekeela. Idazkera kodetzean, egiten dena egiten dela, ezinezko da idatzia erabat egokitzea ahoskera-aldaera guztiei. Hala dira gauzak idatziaren eta ahozkoaren artean, biunibokotasuna ezin da % 100ekoa izan. Lehenengoaren zurruntasun eta batasuna, aniztasun bizia da bestean. Hobetu liteke, seguru, baina arauak ahalik eta gutxien mugitzea komeni da hiztunen mesedetan eta arauen eraginkortasunagatik. Haatik, arauak eragin oneko arau izateko, zenbat eta hobeto ulertu gauzak, hobe.

Ortografiarena gogorarazi da, baldintza psikolinguistiko indartsua delako, letra hotsarekin identifikatzeko joera baitu hiztunak (ik. 1. fonemaz eta Veloso 2019). Oso aintzat hartu beharrekoa da “ba niri ez zait ateratzen”, “niri j-rena ez zait gustatzen” bezalakoak analizatzeko. Arazoak konpontzeko, pasioetatik arrazoietara igaro behar da.

4. Hiztuna eta ahoskera

Webgunea bezalako onarpenak salatzen du hiztunen (eta estandartzea arautzen dugunon) ahoskerarekiko kontzientziarik eza edo, hobeto esan, kontzientzia partziala. Hitz konposatu erdi-mailegatu horrek osagai bien elkarreketa gunean euskarari erabat arrotz zaion hots bilkura eskatzen du. Paperak dena jasaten du, baina ahoskerak ez edo garesti ordaintzen du behintzat.

Paradoxikoki *webgune* onartzearekin batera *yeismoa* arbuia egiten da. Kontuz aztertu beharreko kontu ideologikoa litzateke. Halaber, ahoskerari garrantzi berezia ematen zaio norberaren ohiturak haustea dakarren aholku edo arau baten aurrean. Esaterako, behin eta berriz aipatzen ari garen kasuan, *j* (*j*, *gi*, *ge* maileguetan) *J* egiteko ohitura duenari *Y* eginarazi nahi bazaio, hizkera mailaren izenean erresistentzia izugarria da (EBAZen aurkako nabarmenena).⁶

Gramatikan eta lexikoan ere estandartzeak eskatzen dituen ohitura aldatetak ez dira eroso beti. Lagun batek zin egiten du berak ez duela inoiz *tira-*

⁶ Matxinoari ez zaio ezer gertatzen *jogurta* edo *jada* *Y-z* esateko (gatzelaniazko ahoskera lagun ziurrenik).

dera esango... Niri ere *porrota* esatea kostatu egiten zait eta hamaika ihesbide bilatzen ditut. *Komun(ean)* esatea ere ez zait erraz; halaber ez zait atsegin *guzti horietan* esan beharrean *horietan guztietan* esatea. Tipologiari eskerrak, gainera, ezagunak dira horren kontrako argudio teorikoak (Dressler 1985: 339-340). Baina hala erabaki da eta, hizkera batu zaindu estandarra egitean, saiatu beharko dut araua betetzen. Kontua ez baita norberaren aukera, are gutxiago maiz aitortzen ez den “gustatzea edo ez”. Azter ditzagun gauzak serio eta sakon, argituz lehenengo zertan ari garen eta norantz nahi dugun segitu.

Bagera! Gu're bai! esaten da San Sebastian martxan... eta hori da kontua. Bagara ala ez? Nahi dugu ala ez? Zenbat axola zaigu ahoskera? Zertarako axola zaigu axola zaigunoi? Posible al da ezer egitea denon esku- eta hitz-hartzerik gabe? Nola sortu “yota-eredua” entzute handiko jendeak sistematikoki j ahoskatzen badu egoera formalenetan ere (euskaltzainok hitzaldietan, irakasleok epaimahaietan, unibertsitate-ikasleek tesi baten defentsan, politikariek diskurtso ofizialetan)? Nork bete behar du gomendio hori? Besterik irakasten ez zaien eta azterketetarako eskatzen zaien euskaldun berri gaixoez? Eta nola hitz egin behar dute horiek kalean?

Ez da behar % 100ean arau guztiak beti eta salbuespenik gabe betetzea. Bakoitzak zailtasun eta erraztasun jakin batzuk izango ditu bere historia linguistikoaren arabera. Ahoskera aldakorra eta bizia da gizakiok hizketa gertatu ahala sortzen dugulako eta hiztunok bizi eta aldakor garelako. Lortu behar genukeena da aldakortasun horrek egitura orokor batean funtzionatzea, hizkuntz komunitate osasuntsu batean (Milroy 1994: 21). Horretarako joerak egonkortu behar dira, baina joerak egonkortzeak ez du esan nahi ahoskerak fosildu egin behar dutenik. Ezinezkoa litzateke.

Aldagarritasunaren antolaketan euskara etxetik dakarkigunok erantzukizun handia dugu. Batetik euskara zaindua erabili behar genuke dagokionean, bestetik etxekoa partekatu euskara geletan ikasi dutenekin. Aitziber Garmendiak (2014) zioen bere “izaeraren txokorik sakonenean tatuatu” ziotela egunerokotasunean erabiltzen duen hizkera, eta batua erabiltzen duela idazteko eta, gutxitan, hitz egiteko ere bai. Halaxe da, hiztun gehienek gutxiagotan behar du Batua sehaskan tatuatua baino. Euskaldun berri gehienak ere hiztun mota horretakoak dira. Euskaradunen ehuneko gero eta handiagoa direlarik

eskolan ikasi dutenak euskara, zintzo eta leial hausnartzekoa da arazoa. Nola irakatsi besteoi sehaskan tatuatu zigutena, ez bada aldagarritasun errealista batean? Euskaldun berri batek *burue* edo *buru* ikasten badu, biziki ongi. Euskaldun berri horrek euskara taberna giroan (kalekoan, etxeokan) bakarrik egiten badu eta beti hala esaten badu ere ez da ezer gertatzen. Aski da zaindua arrotz ez gertatzea eta, egun batean telebista esatari kontratua badu, horretara pasatzeko gauza izatea. Bestalde, *burue* eta *telefonua* esango balu ere, ez da larria. Badira hala egiten duten euskaldun zaharrak. Ez balira ere, egokitu zaigun garaia egokitu zaigu. Hizkuntzaren normaltze bideko une honetan gaudede. Ez gara bizi euskalki txukunen garaian eta hizkuntza etengabe ari da berritzen. Euskaltzain osoen bilera bakarrean *genero* hitzaren hiru ahoskera entzun nituen: YENERO, GENERO, JENERO.

Ohituegi gaude eskola-giro zabala den euskararen inguruan *nola esan behar da* galderarekin. *Euskaltzaindiako/Euskaltzaindiko? Iparraldean/Iparralden?* Kontua da beti *behar* hori dela bakar eta nagusi. Hizketa bizia nahi badugu, ahoskerari dagokionerako gutxienez, ohitu behar genuke gerrikoak laxatzen eta erantzunak malgutuz: *nola esan behar da noiz? nork? zertaz hitz egiteko? nola esan behar zaio nori?* Eta horrek ez dezala ekar beste arau eta azpiarau zerrenda bat, baizik eta malgutasunaren, aniztasunaren kontzientzia eta jolasaren askatasuna. Ondo letorke hemen ingelesezko *play*, *play* baita ‘jolastu’ eta ‘(musika tresna bat) jo’ eta ‘antzeztu’. Mundu horretan dago ahoskerarena, *play* horretan.

5. Arauak, arauak eta arauak

Arau gehiago behar direla ahoskeraz entzuten eta irakurtzen da han-hemen. Zerbait egin omen da, baina gutxi, letra elkartze batzuez. Kuriosoa da nola arau gehiago eskatzen dituzten horietako asko, inolako arazorik gabe dabiltzan *Jakin* eta *Joka* ahoskatzen sistematikoki beren hitzaldi eta aurkezpenetan, berdin *prozesu* edo *etcétera* gaztelaniatikako *Z*-rekin esanez. Gogoan izan behar lukete Iparraldeko euskaretan ez dauden hots unitate bi ari direla batu zainduan erabiltzen. Halaber pentsatu behar lukete arau gehiago eskatzea erraza dela norberak ez duenean pairatzen estutzearen deserosotasuna.

Edonola ere 4. atalean esandakoak berresten dituen datu deigarri inportante bat ateratzen da halakoetatik: zenbat kostatzen zaigun ahoskera moldatzea, egokitzea arau batzuetara. Hortik dator gure arduraren arauak ahal bezain gutxi izan daitezen, horien ulermena hobetzeko egin litekeenerako prestasun osoarekin batera. Bestela esan, Ahoskera batzordean ez dugu uste oraingoz bederen arau gehiago behar denik, irizpideak ondo ulertzea baizik:

- a) Hasteko, hizkera zaindua esatean zer adierazi nahi den. Hizkera *zainduak* esan nahi du esaten denaren forma zaindu egiten dela. Ahoskerari dagokionez, hotsak eta silabak egoki (beren oinarritzko formetan) ahoskatzeko ahalegina litzateke: daudenak ahaztu gabe, bakar bat ere “jan” gabe (cf. ARI/AI).
- b) Oinarritzko hots horien forma aldatzekotan, entzumena hobetzeko aldatzea proposatzen da, hizkuntza erabiltzen den inguruagatik hala dagokionean (hitzaldi bat, dokumental bat, hizkera desberdinetako entzuleei zuzentzen zaien politikaria, etab.), hori baita hizkera formalarik dagokiona.
- c) Hori guztia hitzunen sistema gehiegi bortxatu gabe egin nahi izan da eta, inoiz ere, funtsezko aukera bi daudenean euskalkietan, bata besteren gainetik lehenetsi gabe (*miña* eta *mina*).
- d) Bestalde, aukera bakarria bultzatu nahi izan da (hesi fonemikoak errespetatuz, adib., Iparraldeko H) euskararen fonologia kanpotik itxuralda lezaketan eraginaren aurrean eta, batez ere, Ipar/Hego zatiketara sakontzen dutenen aurrean. Hor malgu baina norabide batean bultzatu nahi izan dugu.

6. Batua, zaindua

Egia da ez dela nahitaezko, hizkera zainduan egiteko, *batu* zainduan egitea; euskalki bakoitzak izan lezake bere hizkera zaindua bere hizkera lagunartekoak dituen bezala: linguistikoki ez dago horren aurkako argudiorik, berez gauza artifizial bat ari gara egiten. Naturala litzateke, pulpitutik apai-zek bezala, gipuzkoar peto batek, enfasia emateko, diskurtso publiko batean

SERIYO bezalako ahoskerak erabiltzea. Noski artifiziala dela hori erreprimitea, argudiatuz eransketa duten euskalki guztietan kontsonantea ez dela bera. Baina estandartzea ez da gauza linguistikoki naturala. Estandartu beharra soziologikoa da. Hizkuntzaren batasunaren aldeko argudioak ez dira gaurkoak, baina agian gaur inoiz baino beharrezkoagoa da gogoratzea.

Gogoeta horiez landa, errealitateak EBAZEn alde egin du: askoz gutxiago dira euskalki bakarrekoei zuzendutako hizketaldi formalak. Diskurtso zainduak inoiz baino entzule multzo zabalago bati iritsarazi nahi zaizkio espazio-denborak hedatzen dituzten komunikazio sistemen garaian (*streaming*-ak gogoan, besteak beste).

Esaten da ahoskera kontuak ez direla errazak. Esango nuke hobe litzatekeela esatea ez direla eroso. Erraztasuna gauza erlatiboa da, oso lotua dagoena helburuetarako dauden edo lortzen diren baliabideekin. Esan da ahoskera irakasteko baliabideek ez dutela izan behar gramatika edo hiztegia irakasteko erabiltzen diren berak. Pentsa dezagun, nahita egin nahi dugunean zailen gertatzen denetik hasita, nola bereganatzen duten haurrek prosodia (doinuak, erritmoak), beste ezer baino lehenago (hitzak eta hotsak ere baino lehenago): negarrez, barrez, jolasean.

Halere, ez du ezerk funtzionatuko gogorik gabe. Gogoa da axola duena eta mezua zabaltzea ahoskeraren nolakotasunaz, gauza bizia dela, hiztunari gida minimoak eman behar zaizkiola: oinarrizko ideiak irakasleari eta praktika egokiak ikasleei. Hizkera mailak berez moldatuko dira erabileraz, gure gorputza tinkatu eta laxatzen den bezalaxe. Jarrerak axola dute funtsean eta ez horrenbeste arau zehatzek. Zehatzegi izatea kaltegarri ere izan daiteke, memoriari lana ematen diogun neurrian hizkerak bizitasuna galtzen baitu eta horrek ahoskeraren etorria oztopatzen baitu. Gainera, gero eta argiago erakusten dute ikerlariak ikasle bakoitza mundu bat dela (Taylor 2015: 144).

Azken batean gure lanaren helburu behinena da ahoskeraren garrantzia aldarrikatzea; ez dadin izan azterketetarako eskatzen den zerbait bakarrik. Gogora gaitetzen, bestalde, askotan araurik gabe eta “natural” ateratzen zaigun horrek erdaren eraginari atea irekiago uzten diola. Agian ezin da bestela izan honezkero, euskararen baldintzak direnak direlarik, baina aintzat hartu beharko genuke arazoa, errealitatearen ezagutzarako eta bakoitzaren

hautuen pisua ondo neurtzeko. Dударik gabe, analisisa ezin da berdinean egin hizkera maila desberdinetan. Ziurrenik aukerak ere ez dira berdinak; guk Ahoskera batzordetik proposatzen dugu hizkera zaindurako bilatzea batasun ahalik eta handiena eta euskalkien aniztasunetik jasotzea lagunarteko hizkerarako behar diren ereduak.

Bibliografia

DRESSLER, Wolfgang U. (1985). *Morphology*. Ann Arbor: Karoma Press.

EUSKALTZAINDIA (1998). «Euskara batuaren ahoskera zaindua», *Euskera*, 43 (1998): 485-490.

GARMENDIA, Aitziber (2014). «Batua ala banatua», *Gipuzkoako Hitza* (2014. VI.13).

JAUREGI, Oroitz (2008a). *Euskararen silaba: egitura eta historia*. Bilbo: UPV-EHU.

———, 2008b, «Sobre la naturaleza de la sílaba y la estructuración de sus elementos en euskera», *ASJU* 42 (2008): 337-352.

KRZONOWSKI, Jennifer, FERRAGNE, Emmanuel, PELLEGRINO, François (2015). «Effects of perception and production trainings on the production of English vowels by French native learners». *Proceedings of the 6th ISEL Conference Ex-Ling 2015, 26-27 June, Athens, Greece*, 37-40.

MARIN, Julia (2015). «Esatearen ederra. Agertokitik ikasgelara», *Euskera*, 60 (2015): 451-476.

MILROY, James (1994). «The notion of “standard language” and its applicability to the study of Early Modern English pronunciation», in D. Stein & I. Tienken-Boon van Ostade (arg.), *Towards a Standard English: 1600-1800*, Berlin-New York: Mouton de Gruyter, 19-29.

OÑEDERRA, Miren Lourdes (2020). «Vennemann’s Head Law and Basque». *Approaches to the Study of Sound Structure and Speech*, in M. Wrembel, A. Kielkiewicz-Janowiak, P. Gašiorowski (arg.), *Approaches to the sound structure of speech. Interdisciplinary work in honour of Katarzyna Dziubalska-Kolaczyk*, New York/Abingdon: Routledge, 66-75.

OÑEDERRA, Miren Lourdes, ELORDUI, Agurtzane, EPELDE, Irantzu, ETXEBERRIA, Pilartxo, JAUREGI, Oroitz, SALABERRIA, Jasone (2015). «Ahoskerak axola du», *Euskera*, 60 (2015): 499-531.

RINDAL, Ulrikke (2013). «Meaning in English : L2 attitudes, choices and pronunciation in Norway». Tesilana (174), Department of Teacher Education and School Research, Faculty of Educational Sciences, University of Oslo, Oslo.

ŠIMÁČKOVÁ, Šárka, PODLIPSKÝ, Václav Jonáš (2015). «Pronunciation of L2 sounds at word boundaries: Stop-Stop sequences in Czech English». *EPIP4 4th International Conference on English Pronunciation: Issues & Practices. Prague, May 21-23*, 139-142.

———, 2016, «Global foreign accent rating of code-switched and L2-only sentences», *Research in Language*, 2 (2016): 149-164.

TAYLOR, Becky (2015). «Why is Japanese pitch accent so difficult for English speakers?», *EPIP4 4th International Conference on English Pronunciation: Issues & Practices. Prague, May 21-23*, 143-145.

VELOSO, João (2019). «Phonology and writing: can we look at written productions to “see the unseeable” in phonology?», *Loquens*, 6 (1), e059. <https://doi.org/10.3989/loquens.2019.059>